

## **SUBVENCIONES DE COOPERACIÓN INTERNACIONAL** **Y/O DE EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO**

### **BASES 2019**

**1.-** La Junta de Gobierno del Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia ha acordado **abrir el plazo de presentación de Proyectos de Cooperación internacional y/o de Educación para el Desarrollo** que puedan ser subvencionados con cargo a la partida presupuestaria del Colegio destinada a tal fin.

**2.-** Los Proyectos que se presenten deberán estar destinados a actividades relacionadas con la Abogacía o con la ejecución, defensa y desarrollo de los principios que a ésta corresponde defender o con la defensa de los Derechos Humanos.

**3.-** Los Proyectos se presentarán en el Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia (Rampas de Uribitarte nº 3 - 2º, 48001 Bilbao) dirigidos a la Comisión de Cooperación Internacional.

**4.-** El **plazo** de presentación de los Proyectos finalizará el **27 de marzo de 2019**.

**5.-** La partida destinada a la subvención de los Proyectos asciende a **TREINTA Y CUATRO MIL DOSCIENTOS EUROS (34.200€)** y podrá ser dedicada a un único Proyecto o distribuida entre varios de los presentados.

**6.-** Los Proyectos habrán de ser presentados por fundaciones o asociaciones sin ánimo de lucro con domicilio en el Estado Español y, en su caso, actividad en Educación para el Desarrollo en la CAPV, e indicará las personas que se harán responsables del seguimiento y supervisión del Proyecto, facilitando al mismo tiempo todos los datos necesarios para conocer e identificar a la persona, asociación u organización encargada de ejecutar el mismo en el lugar donde se desarrolle el Proyecto. Quien presente el Proyecto acreditará si ha ratificado el Código de Conducta de la Coordinadora de ONGD de Euskadi, circunstancia que será valorada positivamente en la concesión de las ayudas y subvenciones.

**7.- Estudio y Resolución.** Los Proyectos presentados en plazo serán analizados por la Comisión de Cooperación Internacional del Colegio, la cual informará a la Junta de Gobierno para que ésta adopte la decisión final sobre el destino de las subvenciones y ayudas.

**8.- Ejecución.** Las actividades subvencionadas deberán ejecutarse en el plazo máximo de **12 meses** desde la fecha de la resolución.

**9.- Abono de la Subvención.** Una vez notificada la concesión de la subvención, se procederá al abono del 50% de la subvención concedida. La cuantía restante será abonada una vez aceptada la memoria de actividad parcial y justificado el gasto del importe recibido en el primer pago, en los términos establecidos en el siguiente apartado.

**10.- Seguimiento y justificación de las acciones subvencionadas.** La justificación económica de los gastos y actividades realizadas con cargo a la subvención deberá ajustarse a las partidas financiadas de conformidad con lo presupuestado, no pudiendo modificarse las mismas salvo por autorización expresa de la Comisión.

Para la justificación de los gastos deberán presentarse facturas originales o fotocopias compulsadas, sin perjuicio de la obligación de las entidades beneficiarias de aportar cuanta documentación complementaria les sea requerida con esta finalidad

Las entidades subvencionadas deberán presentar al finalizar el proyecto una memoria ante la Comisión de Cooperación justificativa de la totalidad de su ejecución en un mes de plazo desde la finalización del proyecto. Los costes indirectos, si se hubieren financiado, no precisarán de justificación documental hasta un máximo del 10% del importe subvencionado.

Bilbao, a 6 de febrero de 2019.



## **DIRU-LAGUNTZAK NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO**

### **EDO/ETA GARAPENERAKO HEZKUNTZARAKO**

#### **2019KO OINARRIAK**

**1.-** Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuko Gobernu Batzordeak erabaki du Elkargoan xede horretara bideratutako aurrekontu-partidaren kontura diruz lagundu daitezkeen **nazioarteko lankidetzarako proiektuak edo/eta garapenerako hezkuntzakoak aurkezteko epea irekitzea.**

**2.-** Aurkezten diren proiektuak abokatutzari lotutako jardueretara edo abokatutzak defendatu behar dituen printzipioak gauzatu, defendatu edo garatzera edo giza eskubideen defentsara bideratuta egon behar dira.

**3.-** Proiektuak Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuan aurkeztuko dira (Uribitarte arrapalak 3 – 2. solairua, 48001 Bilbo). Nazioarteko Lankidetzaren Batzordeari zuzendu behar zaizkio.

**4.-** Proiektuak aurkezteko **epea 2019ko martxoaren 27an** amaituko da.

**5.-** Proiektuak diruz laguntzera bideratutako partida **HOGETA HAMALAU MILA ETA BERREHUN EUROKOA (34.200€)** da, eta proiektu bakar bati edo aurkeztutako zenbaiti banatuta eman ahal izango zaie.

**6.-** Proiektuak Espainiako estatuan egoitza duten eta, behar izanez gero, garapenerako hezkuntzako jarduerara EAEn duten irabazteko asmorik gabeko fundazio edo elkarteek aurkeztu behar dituzte. Proiektuaren jarraipena eta gainbegiratzea egingo duten pertsonak zehaztuko dira, eta beharrezko datu guztiak emango dira proiektua garatuko duen pertsona, elkarte edo erakundea ezagutu eta identifikatzeko. Proiektua aurkezten duenak Euskadiko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinatzailearen Jokabide Kodea berretsi duen adieraziko du, eta inguruabar hori modu positiboan baloratuko da laguntzak eta diru-laguntzak ematerakoan.

**7.- Proiektuen azterketa eta ebazpena.** Epearen barruan aurkeztutako proiektuak Abokatuen Elkargoko Nazioarteko Lankidetzaren Batzordeak aztertuko ditu. Batzordeak horren berri emango dio Bazkuneko Gobernu Batzordeari. Gobernu Batzordeak diru-laguntzen eta laguntzen inguruan azken erabakia hartuko du.

**8.- Gauzatzea.** Diruz lagundu daitezkeen jarduerak ebazpena eman eta hurrengo **12 hilabeteetan** gauzatu behar dira beranduenez.



**9.- Diru-laguntza ematea.** Diru-laguntza emango dela jakinarazi ondoren, kopuru osoaren %50 ordainduko da. Gainerako kopurua ordainduko da jarduera-memoria partziala onartzen denean eta lehen ordainketan jasotako zenbatekoa erabili dela justifikatzen denean, hurrengo atalean ezarritakoari jarraituz.

**10.- Diruz lagundutako ekintzen jarraipena eta justifikazioa.** Diru-laguntzaren kargura egindako gastuen eta jardueren justifikazio ekonomikoa finantzatutako partidetara egokitu beharko da, aurrekontuarekin bat etorritik. Partida horiek ezin izango dira aldatu Batzordeak esanbidezko baimena ematen ez badu.

Gastuak justifikatzeko, jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira, eta, horrez gain, erakunde onuradunek xede horretarako eskatzen zaien dokumentazio osagarria gehitu beharko dute.

Proiektua amaitzen denean, diruz lagundutako erakundeek proiektuaren gauzatze osoari buruzko memoria bat aurkeztu beharko dute Abokatuen Elkargoko Lankidetzaren Batzordean, proiektua amaitzen denetik hilabeteko epean.

Zeharkako gastuak, finantzatu baldin badira, ez dira dokumentuen bidez justifikatu behar izango diruz lagundutako zenbatekoaren %10era arte gehienez.

Bilbo, 2019ko otsailaren 6a.

**SUBVENCIONES DE COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
Y/O EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO**

**CONVOCATORIA 2019**

**ANEXO RESUMEN PROYECTOS**

- ❖ **NOMBRE DE LA ONG:**
- ❖ **CIF DE LA ONG:**
- ❖ **NOMBRE DEL SOCIO DEL PAIS DE DESTINO:**
- ❖ **TITULO DEL PROYECTO:**
- ❖ **AREA GEOGRAFICA PRINCIPAL:**
- ❖ **PERIODO TOTAL DE EJECUCION:**
- ❖ **OBJETIVO GLOBAL:**
- ❖ **OBJETIVOS ESPECIFICOS:**
- ❖ **PRESUPUESTO TOTAL Y DESGLOSADO:**
- ❖ **CANTIDAD QUE SE SOLICITA:**
- ❖ **Nº DE CUENTA BANCARIA PARA, EN SU CASO, EL ABONO DE LA SUBVENCION:**
- ❖ **NOMBRE, TELEFONO Y CORREO ELECTRONICO DE LA PERSONA DE CONTACTO:**



**DIRU-LAGUNTZAK NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO EDO/ETA  
GARAPENERAKO HEZKUNTZARAKO**

**2019KO DEIALDIA**

**ERANSKINA. PROIEKTUEN LABURPENA**

- ❖ **GKE-AREN IZENA:**
- ❖ **GKE-AREN IFK:**
- ❖ **JOMUGAKO HERRIALDEKO BAZKIDEAREN IZENA:**
- ❖ **PROIEKTUAREN IZENBURUA:**
- ❖ **INGURU GEOGRAFIKO NAGUSIA:**
- ❖ **GAUZATZEKO ALDI OSOA:**
- ❖ **HELBURU OROKORRA:**
- ❖ **HELBURU ZEHATZAK:**
- ❖ **AURREKONTU OSOA ETA XEHEKATUTA:**
- ❖ **ESKATZEN DEN DIRU KOPURUA:**
- ❖ **BANKUKO KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA, HALA DENEAN, DIRU-LAGUNTZA ORDAINDU AHAL IZATEKO:**
- ❖ **HARREMANETARAKO PERTSONAREN IZENA, TELEFONOA ETA POSTA ELEKTRONIKOA:**